

encuentrostopaketak

# Euskera askatasunean

2008ko Urriaren 2an  
Miramar Jauregia  
Donostia



***solucioneskonponbideak***

**PSE-EE  
PSOE**



## 1. Abiapuntua

Haize berriak dabilta Euskadin. Erregenerazio haizeak gizartean, kulturean eta politikan. Gure eguneroko bizitza zamaten jarraitzen duten iraganeko presentziak gorabehera, gauza asko ari dira aldatzen partekatzen dugun errealitate honetan. Besteak beste, Euskadin hizkuntzaren gaia ulertzeko moldea ari da aldatzen, eta aldi berean antzeman egiten da beharrezkoa dela formula berriak proposatzea elkarbizitza harmoniatu eta emankorra lortzeko euskararen eta gaztelaniaren artean. Horregatik, eta "Euskara askatasunez" izenarekin, adierazpide kritiko, anitz, demokratiko eta integratzaile bat sustatu eta bultzatu nahi dugu euskarazko kulturari buruz ikuspegi moderno eta irekia duten pertsona guztiak biltzeko.

Gehiegitan jasan dugu euskal gizarteak dituen hizkuntzekiko erabilera politizatu eta gehiegikeria politikoez jositako giroa. Egoera horren aurrean, defendatu nahi dugun politika euskaltzaleak ezaugarri berezi zenbait izango ditu: oinarri identitario edo historizistarik gabea izango da, gaur egungo euskal gizartearen elebitasunean oinarrituta egongo da eta, ondorioz, akordioan sustengatutako elebitasuna bultzatuko du. Honen ildotik proposatzen dugu enplegu publikorako sarbideak euskal gizartearen izaera anitz eta elebiduna islatu behar duela, hizkuntzaren gaiak ezin dituela euskal hiritarren aukera pertsonalak modu erabakigarrian baldintzatu. Hausnarketa orokor bat egin behar dela uste dugu akordio berri bat lortzeko hizkuntza politikari buruz, bi hizkuntzen hiztunen artean bizikidetza libre ahalbideratzeko.. Izan ere, gure iritzirako, euskarazko kultura moderno eta inolako sektakeria ideologikorik gabea sendotzeko bidea neurri eta ekintza berriak bultzatuzetik etorriko da. Neurri eta ekintza horiek, hizkuntzaren erabileraren kasu zehatzean, benetan eraginkorrak izan beharko dute sustatze eta bultzatzeari dagokionez, eta gaztelaniaz bakarrik mintzatzen diren euskal hiritarrak baztertzea ekar lezakeen inposaketazko ezein politikatik urrunduak.

## 2. Ikuspuntuak

Euskal gizartea prestatua dago, demokrazian hainbat hamarkada egin ondoren, gobernuan aldaketa eta alternantzia burutzeko. Garaia da alternatiba bat eratzeko Euskadiko kudeaketa politikoa, besteak beste norabide aldaketa sendo bat bultzatuko duena kulturari buruzko politika ulertzeko moduan eta mamian. Kultura-eredua benetan aldatu ahal izateko nahiatezkoa da Eusko Jaurlaritza ere aldatzea.

Ikuspegi horren aurrean, euskararentzako kultura berri bat defendatzen dugunok elkargune bat bilatu nahian gabilta, kultura eta hizkuntza politikei beste norabide bat eman beharra dagoela pentsatzen duten pertsonak elkartzeko, politika horiei ikusmolde alderdikoi eta sektarioak, are nabarmen diskriminagarriak ere, kentzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza mintzatzen dira, komuna horietako bat bakarrik den arren. Biak ere hartu behar dira erakunde publikoek babestu eta sustatu beharreko ondare sozial eta kultural gisa. Gobernatzeko ardura daukatenez ezin dute baztertu ez euskara ez gaztelania. Hori dela eta, uste dugu lehentasunezkoa dela hizkuntza hiritarren zerbitzura jartzea eta ez alderantziz. Erakunde publikoek hizkuntza-arloan bultzatu beharreko ekintzak ez du bakar-bakarrik euskal gizartearen zati baten irizpideetan oinarritu behar; aitzitik, eredu libreago bat erdietsi behar du, Euskadiko hiritarren hizkuntza-errealitatea errespetatu eta gizarte-kohesioa indartuko duena. Erabat sinetsita gaude euskararen oraingo osasuna eta haren erabileraren geroa hertsihertsiki loturik daudela behar bezalako sustatze politika bati, besteak beste, euskara ikastea hurbilerraza eta erakargarria izan dadin.

Nahitaezkoa da, halaber, euskaltzaletasuna ikusmolde abertzale edo nazionalistatik erantsi ohi izan zaizkion edukietatik bereiztea. Euskara lantzea eta ikertzea ez daude berez halako ideologia jakin bati loturik, arlo horietan aritu eta ari direnen perfil politiko denetarikoak erakusten duen bezala.

Eta helburu horien guztien gainera, eta hizkuntza-faktore soiletik haragato, bada eginkizun premiazko eta oinarritzko bat, hau da, bultzatzea

euskarazko kultura bat guztiz demokratikoa eta inolako oniritzi, tolerantzia edo hurbiltasun intelektualik azalduko ez duena ETArekin eta haren inguruaren oinarri ideologiko eta xede totalitarioekiko, horrek, bestalde, pertsona askok euskara eta euskal kulturarekiko duten atxikimendurik eza ekarri baitu.

### **3. Proposamenak**

Euskararentzat proposatzen dugun politika berriak euskal gizartea integratu egin nahi du bizikidetzaren demokratikoko proiektu komun batean non euskarak bere leku propioa aurkituko baitu gaztelaniarekin batera. Jakitun gara zer aberastasuna eta zer komunikazio ahalmen ikaragarria ematen dion Euskadiri bi hizkuntzaren jabe izateak, eta horregatik aurrerantzean hizkuntzen arteko kohesio eta bizikidetzarako politika bultzatu nahi dugu, ezein liskarretik urrunduta.

Euskal hiritarrek kultura arloan behar eta eskatzen duten norabide berria guk uste zenbait zutabe estrategikotan oinarritu daitekeela, horiek baitira euskararentzako politikaren gaineko ikuskera berri baten ondoriozko erreforma-proposamenak.

- a) Euskaraz egindako jarduera kulturalen finantzaketa publikoari eustea, konpromiso garbi-garbia hartuz ez dela haien hornidura ekonomikoa gutxituko, eta gaztelaniaz gauzatzen den euskal kultura babesteari kalterik ekarri gabe.
- b) EITB eraberritzea informazio-zerbitzu publiko anitz eta demokratikoa, eta kalitateko eduki kulturalekin, eskaintze aldera. ETB-ien moldeak, edukiak eta aurrekontua aztertzea kultura euskaldun moderno eta askotarikoa garatzeko tresna baliagarri eta eraginkorra izan dadin.
- c) Aniztasunean oinarritutako hizkuntza-eredu bat defendatzea: eredu horrek hezkuntza-sisteman bere isla izango du euskara belaunaldi berriei helaraztea bermatzeko, eta erdaldunak euskararen mundura erakartzeko, euskaraz ez dakiten horiek uxatzeke edo eta nahitaez

ikastera behartu gabe, izan ere emaitzak etsigarriak izan dira-eta gehiegitan.

- d) Kultura-proiektu euskaldun demokratiko eta askotarikoa garatzea, nola euskara hala euskarazko kultura erabilera politikotik kanpo utziko duena.
- e) Euskarazko kulturaren prestigio demokratikoa hiritarren artean lehenbailehen berreskuratzea, oinarritzat hartuz aniztasun eta sormen irizpideak, hiritartasunari lehentasuna emanez identitatearen eta etnikotasunaren gaineratik, eta argi eta garbi salatuz nazionalismo biolentoak –euskaldun askoren urruntasuna eraginez– sortarazten duen identifikazioa.

Uste dugu gutxienezko proposamen-multzo honen gainean adostasun batzuk sor daitezkeela hurrengo urteetan euskal kultura ireki eta libre bat eraikitzen laguntzeko, Euskadiko autonomia erkidego guztiaren aniztasuna ordezkatzeko gauza dena eta, beraz, hemengo hiritarren isla duintzat ere har litekeena.

encuentrostopaketak

# Euskera en libertad

2 de Octubre 2008  
Palacio de Miramar  
San Sebastián.



***solucioneskonponbideak***

**PSE-EE  
PSOE**



## 1. Punto de partida

Corren aires nuevos en Euskadi. Aires de regeneración en la sociedad, la cultura y la política. Pese a las presencias del pasado que siguen lastrando nuestro día a día, son numerosos los aspectos que están experimentando cambios en esta realidad que compartimos. Está cambiando, entre otras cosas, la manera de concebir la cuestión lingüística en el País Vasco, al tiempo que se percibe la necesidad de proponer nuevas fórmulas para alcanzar una convivencia armónica y productiva entre el euskera y el castellano. Por ello, y bajo la denominación de “El euskera en libertad”, pretendemos alentar e impulsar un cauce de expresión crítico, plural, democrático e integrador que aglutine a todas aquellas personas que tienen una visión moderna y abierta de la cultura en euskera.

Demasiadas veces hemos soportado un clima de usos politizados y abusos políticos de las lenguas en las que se expresa la sociedad vasca. Frente a esta situación, defendemos una política euskaltzale libre de fundamentos identitarios o historicistas, anclada en el carácter bilingüe de la sociedad vasca actual y comprometida, en consecuencia, con un bilingüismo basado en el acuerdo. A este respecto, proponemos que el acceso al empleo público refleje el carácter plural y bilingüe de la sociedad vasca sin que la cuestión lingüística influya de modo determinante en las opciones personales de los ciudadanos vascos. Consideramos necesaria una reflexión general para lograr un nuevo acuerdo sobre la política lingüística que permita una convivencia libre entre los hablantes de los dos idiomas. De hecho, creemos que la vía para la consolidación de una cultura en euskera moderna y alejada de sectarismos ideológicos pasa por medidas y actuaciones nuevas, que en el caso específico del uso de la lengua han de estar relacionadas con la promoción y el fomento verdaderamente eficaces, nunca con políticas de carácter impositivo que conlleven el arrinconamiento de los ciudadanos vascos que se expresan únicamente en castellano.

## 2. Perspectivas

La sociedad vasca está preparada, tras varios decenios de recorrido democrático, para el cambio y la alternancia en el gobierno. Es el momento de articular una alternativa de gestión política en Euskadi que propicie, entre otras cosas, un cambio de rumbo firme en la forma y el fondo de entender la política cultural. Para materializar un cambio efectivo de modelo cultural es imprescindible un cambio en el Gobierno Vasco.

Ante esa perspectiva, quienes abogamos por una nueva política para el euskera buscamos proporcionar un punto de encuentro para aquellas personas que creen necesario dar un nuevo rumbo a las políticas cultural y lingüística que sirva para liberarlas de visiones partidistas y sectarias, cuando no claramente discriminatorias.

En la Comunidad Autónoma Vasca se hablan dos lenguas, aunque sólo una de ellas es común. Ambas tienen que ser consideradas como un patrimonio social y cultural que debe contar con la protección y el fomento de las instituciones públicas. Ni el euskera ni el castellano pueden ser marginados por parte de quien tiene la responsabilidad de gobernar. Consideramos, por ello, que es prioritario poner las lenguas al servicio de los ciudadanos, y no al revés. La acción pública en materia lingüística no ha de estar basada en los criterios de sólo una parte de la sociedad vasca, sino que debe orientarse hacia un modelo más libre, que sea respetuoso con la realidad lingüística de la ciudadanía vasca y que favorezca la cohesión social. Tenemos el pleno convencimiento de que la salud actual del euskera y el futuro de su uso están estrechamente vinculados a una política adecuada de promoción que, entre otras cosas, haga del aprendizaje del euskera una actividad accesible y atractiva.

Es igualmente indispensable disociar la noción de euskaltzale de los contenidos que tradicionalmente le han sido adjudicados desde una visión abertzale o nacionalista. El cultivo y el estudio del euskera no están ligados por naturaleza a una ideología determinada, como pone de manifiesto el variado perfil político de quienes se han dedicado y se dedican a esas tareas.



Y por encima de todos estos objetivos, y más allá del factor estrictamente lingüístico, está la tarea urgente y primordial de fomentar una cultura en euskera plenamente democrática, libre de cualquier atisbo de complacencia, tolerancia o proximidad intelectual con los presupuestos ideológicos y los fines totalitarios de ETA y su entorno, algo que ha sido, por otra parte, causa de la desafección de muchas personas hacia el euskera y la cultura vasca.

### **3. Propuestas**

La nueva política para el euskera que proponemos quiere integrar a la sociedad vasca en un proyecto común de convivencia democrática donde el euskera encuentre su lugar propio y compartido con el castellano. Somos conscientes de la riqueza y el extraordinario potencial comunicativo que supone para Euskadi poseer dos lenguas y, por eso, apostamos por una política futura de cohesión y convivencia entre éstas, alejada de cualquier tipo de confrontación.

La reorientación cultural que necesita y demanda la ciudadanía vasca puede asentarse, a nuestro entender, sobre varios pilares estratégicos, que constituyen las propuestas concretas de reforma que se derivan de una nueva concepción de lo que ha de ser la política para el euskera:

- a) Mantenimiento de la financiación pública de las actividades culturales realizadas en euskera, con el compromiso explícito de no reducir su dotación económica y sin menoscabo de la protección a la cultura vasca que se expresa en castellano.
- b) Reforma de EITB en orden a ofrecer un servicio público de información plural y democrático, con contenidos culturales de calidad. Revisión de formas, contenidos y presupuesto de ETB-1 para convertirlo en instrumento útil y eficaz del desarrollo de una cultura en euskera moderna y plural.

- c) Defensa de un modelo lingüístico basado en el respeto a la diversidad; un modelo con reflejo en el sistema educativo que garantice la transmisión del euskera a las nuevas generaciones y que atraiga al mundo del euskera a los no vasco parlantes, sin repelerlos ni forzarlos a un aprendizaje impuesto cuyos resultados han sido en demasiadas ocasiones desoladores.
- d) Desarrollo de un proyecto cultural euskaldún democrático y plural que sitúe al euskera y su cultura al margen de la utilización política.
- e) Impulso a la urgente recuperación del prestigio democrático y ciudadano de la cultura en euskera, tomando como base los criterios de pluralidad y creatividad, primando el carácter ciudadano sobre el identitario y étnico, y denunciando abiertamente la identificación que el nacionalismo violento busca, provocando así el desapego hacia el euskera de muchos vascos.

Consideramos que sobre este conjunto mínimo de propuestas pueden crearse consensos que contribuyan a erigir en los próximos años una cultura en euskera abierta y libre, capaz de representar la pluralidad del conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi y que, por tanto, pueda considerarse digna de sus ciudadanos.